



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-03-13

VIIURTEA 1.652.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

150 txirrindulari ariko dira lehian, bihar, XXI. Insalus Saria frogan

LIZARTZA Afizionatu mailako frogak 107 kilometroko ibilbidea izango du; Altzo hiru aldiz igo beharko dute

AURTENGOA laz baino parte-hartzaile gehiago daude; antolatzaileek ez dela luzea, baina gogorra dela diote 7



Iturtxulon 40 ikasle inguru aritu ziren landatzen. I. GARCIA

GEREZI-ERRAMUAK LANDATU DITUZTE ANOETAKO IKASLEEK 6



Atzokoan, Goringo taldekoen saioa izan zen ikusgai. A. IMAZ

Ahoz aho jaialdiaren gala nagusia izango da gaur ikusgai, Leidor aretoan

TOLOSA Herrialde askotako ahozkotasunaren artisauak bilduko dira, 20:00etatik aurrera 5



Bertsolar **hitza** ^{info} desafioa

2. saioa: **Altzo vs. Ibarra**

Non: Altzoko Elordi Elkartean

Noiz: Martxoak 13, ostirala • 20:30ean



Antolatzaileak:
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
eta Gipuzkoako Bertsotale Elkartea.



Gipuzkoako
Bertsotale
Elkartea



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Aiz-Orratz Veleta elkartetik zehaztapenak

Inauterietako programen barruan antolatzen diren ekitaldiak direla eta, Tolosan zabaldu den albiste bat argitu eta azaldu nahi dugu idatzi honen bidez: Haur Jaialdia, Haur Danborrada, Mozorro Lehiaketa eta Marrazki Lehiaketa.

1.- Informazio hau zabaldu da: aipatu ekitaldiak aurten antolatuta dituela azkeneko aldiz, agian, gure elkarteak.

Jakinaren gainean jartzen dugu, denon pozerako, Veleta Aiz-Orratz elkarteak ekitaldi horiek antolatzen jarraituko duela orain arte bezala, bazkide ekipo berri batekin. Talde horrek hartuko du bere gain ikuskizun eta ekitaldi horien antolaketa lanen ardura.

2.- Bide batez, orain arte lan horietan aritu den taldeak eskerrak ematen dizkie kolektibo, erakunde eta, oro har, pertsonalari: Udala, laguntzaileak, iragarki jartzaileak, ikastetxeak, Haur Jaialdiko taldea, Mozorro Lehiaketako epaimahaia eta Marrazki Lehiaketako epaimahaia; eman duten laguntzaileak eta aitortzeko, Haur Jaialdiko taldea, Mozorro Lehiaketako epaimahaia eta Marrazki Lehiaketako epaimahaia; eman duten laguntzaileak eta aitortzeko, Haur Jaialdiko taldea, Mozorro Lehiaketako epaimahaia eta Marrazki Lehiaketako epaimahaia.

Orain arte honetan ibili garenok, behin eta berriro eskertuz denei eman duguten laguntza, eskatzen dizue antolaketa talde berriari laguntzen jarraitzea.

Aiz-Orratz Veleta elkarteak.

Zergatik dago Ibarroko frontoia itxita?

Udal kiroldegiko frontoia itxita egoten da igandeetan eta kiroldegiko ordutegiarekin kanpo (eguerditan). Herri guztietan udal frontoia irekita egoten da eta zergatik orduan itxi behar dute Ibarrokoa? Bertara joan nahi dugunok igandeetan ez dugu aukerarik.

Badakigu arrazoia: asteburuetan zikina uzten zutela eta itxi zuten. Baina neurriak beste era batekoak izan beharko luketela irudi-

zen zait, eta ez erabiltzaile guztiak izorratzea. Herri guztietan bezala, Ibarren ere udal pilotaleku bat nahi dugu, beti erabilgarria izango dena.

Ibartar bat.

Tolosako aparkalekuekin arazoak

Bai, askotan irakurri dut aparkalekuen inguruan dagoen arazoaren inguruko kezak. Baina, lotsagarria iruditzen zait, benetan. Nik OTAKo txarteltxo hori daukat, eta hala ere arazoekin ibiltzen naiz guero aparkatzeko. Leku erditan ezin dut aparkatu eta gainera lekuak kendu dituzte. Obra guztiak bukatu bitarte iruditzen zait behintzat OTAKo txartela dugunak baimena izan beharko genuela Euskal Herria plazan, Rondilla kale osoan, aparkatzeko. Niretzat amets gaizto bat bezala da, eta ezin dut permititu garaje bat hartzea... Konpondu ezazue aparkalekuena, mesedez, denon ardura da.

Ainhoa.

Txakur arrisksuak

Txakurren jabeek ardura pixkat eskatzen diet. Kumetan oso politak dira, baina gero hazi egiten dira eta gure ardura behar dute. Zaindu egin behar dira, ez bakarrik egunero jaten eman eta kito, maitasuna behar dute, garbitasuna... Zainketa hauek «arrisksutzat» jotzen diren arrazen kasuan areagotu egiten dira. Arraza hauek dituzten jabeak ez ditut ulertzen; oso zaila da horrelako txakur bat zaintzea ardura handiagoa eskatzen du eta kasu honetan (nahiz eta besteetan ere ez dut uste horrela den) ezin dira jabearen erantzunkizunak alde batera utzi, besteontzat arrisksua baita. Askotan ikusi ditut horrelako txakurrak muturreko-rik gabe eta atzetik indar nahikoa ez duten jabeak arrastaka daramatzela... Guztiontzako da arrisksua eta guztion ardura da jabeek gutxiengo neurri batzuk eskatzea.

Axun.

B Blogteka**Inauteriak pasa ondoren, Musika Banda Usurbilera**

Inauteriak pasa ondoren, Tolosako Musika Banda berriro lanean hasi da eta hurrengo kontzertua prestatzen ari da: datorren igandean, martxoak 15, Usurbilen eman- gogoa duena.

Bandaren urteko egitarauaren barruan, hiru une garrantzitsu daudela esan daiteke: Eguberriak, Inauteriak eta sanjoanek. Horietan biltzen dira kontzertu eta saio gehienak. Inauterietan Bandak ez ditu emanaldi gehiegi, hiru izaten dira: kontzertu-pregoaia, Danborrada eta Diana. Baina Dianako bi ordu eta erdian interpretatzen dituen nota kopurua txaranga gutxi- txik gaitutuko ditu egun osoan zehar. Eta Bandaz aparte, bandakideek txaranga askotan hartzen dute parte. Txaranga gutxi izango dira Musika Bandaren partaiderik gabekoa. Beraz, Inauteriak Bandarentzat urteko une garrantzitsu eta neketsua dela esan daiteke.

Bada, horren ondoren berriro entsaioetan murgilduta eta hurrengo kontzertua ahalik eta hobekien prestatzen ari da dagoeneko. Hurrengo igandean, hilaren 15ean, izango da Usurbilen, Zumar- te musika eskolak eta Usurbil-

go Udalak antolatutako V. Soinur- bil Musika Astearen barruan. Tolosako Musika Banda kalejiran aterako da 11:30ean eta ondoren, 12:30ean, kontzertua eskainiko du frontoian. Errepertorio anitza eta atsegina prestatu du horretarako, beti bezala. Alde batetik 'Puenteareas' pasodoblea eta 'Poeta y aldeano' obertura, bestalde 'James Bond' eta 'Karibeko Piratak' fil- meetako doinuak, 'Cartoon' eta 'Dancing show' aire martxoak eta 'Baldorba' eta 'Jaialdia' eus- kal piezak.

Tolosako Musika Banda

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/banda>

Juan Kruz Igerabide Arratzainen

Gaur goizean Juan Kruz Igerabide gure artean egon da.

Liburutegian L.H.ko 3. mailakoekin bildu da. Ikasle hauek gelan landu duten *Botoi bat bezala* poema liburuarri buruz Juan Kruze- kin hitz egiten aritu dira.

Berriz ere, guztiok erakutsi digu berak gauzak modu berezi batean begiratzen dituela.

Doctor Fleming ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming>

**K Kirol jarduera****Gaur, ostirala****Areto futbolak**

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean: Laskorain-Esko Gazte- ak nesken mailan.

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etatik aurrera, jubenilen par- tida: Laskorain - Eskoriatza.

Bihar, larunbata**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantil mutilak: Take B - Askatuak; Take C - Toki Alai.

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etatik aurrera, kadete mutilak: Take B - La Salle.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, senior mutilak: Bidebi- de Ibiza - Mikeldi.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etatik aurrera, kadete nes- kak: Take B - Antigua Luberrí.

Esquibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etatik aurrera senior mailako partida: Tolosa - BKL.

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etatik aurrera infantil maila- ko partida: Tolosa - Leizaran.

Igeriketa

■ Usabalgo igerilekuan, Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa. Goizean 10:00etan hasita, eta arratsaldean, 17:00etatik aurrera.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantil txikiak: Tolosa CF - Zarautz.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, emakumeen partida: Tolosa CF - Anaitasuna.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, lurraldeko 1. mailako partida: Tolosa CF - Urola.

Pilota

■ Beotibarren, 16:00etan, GRAVN tornea: Gipuzkoa - Bizkaia.

Etzi, igandea**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, alebinak: Tolosa CF - Lagun Onak.

Igeriketa

■ Usabalgo igerilekuan, Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa. Goizean 10:00ean, eta arratsaldean, 17:00etan.

U Urteurrenak

IV. urtemuga
JOAKIN BALERDI ERAUSKIN

Beti gogoan

Etxekoak

Meza igandean, hilak 15, 12:00etan
Tolosako San Frantzisko parrokiak.

TOLOSAN
2009ko
martxoaren 13an



II. urteurrena
JULI KARRERA AGIRREBARRENA

Ez zara erabat joan, gurekin segitzen baitu, beti, zure barruaren islada, izan den eta den, zure irribarre goxoak.

AMEZKETAN
2009ko
martxoaren 13an

Zure sendia



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Genero eta immigrazioaren inguruko narrazio lehiaketak baditu irabazleak

Gizartea » Jone Amonarriz eta Arantxa Otegi izan dira garaile, Tolosaldea Garatzenek antolatutako lehen literatur txapelketan.

ERREDAKZIOA

Jone Amonarriz eta Arantxa Otegi irabazi dute Tolosaldea Garatzen agentziak antolatutako Genero eta immigrazioaren inguruko I. Narrazio Lehiaketa.

Emakumeen ekarpena migrazio prozesuetan izenburupean, «emakume etorkinek migrazio prozesuetan duten protagonismoari balioa ematea» zen ekimenaren helburua. Atzeritik Tolosaldera etorritako emakumeen historiari bidez, eta bertatik atzerria joan diren bitartez.

Bi kategoriatan lehiatu dira parte-hartzaileak. Alde batetik, 16 urtetik beherakoak, eta bestetik, helduagoak. Lehen kategorian, aipatu bezala, Laskorain ikastolako Jone Amonarriz izan da garaile, *Itzalpean* izeneko lanarekin. Helduetan berriz, Arantxa Otegi, *Itsas bestaldera urriaz* (Por octubre a ultra-



Herenegun izan zen sari banaketa; irudian, irabazleak, antolatzaileak eta epaimahaiko kideak. E. EZBIZA

mar) idazlanarekin izan da garaile.

Herenegun banatu zituzten lehiaketako sariak, eta ekitaldian, Ereite elkartekoen laguntzaz, bi emakume etorkinek beraien istorioa kontatu zuten. Izan ere, lehiaketara aurkeztu ziren testuak irakurtzean, antolatzaileek ikusi zuten jendea betiko topikoetan erortzen zela askotan: «hau da, bizi

kalitate oso txarra duten pertsonak direla hona datozenak eta hemen bizitzera hobe bat bilatu nahi dutela. Gero, ailegatzean, oso erraz ateratzen direla aurrera, laguntza asko ematen zaiela...». Hori dela eta, sari banaketarekin batera, egonera horretatik igaro diren bi emakumeren benetako testigantzak ere entzun ahal izan ziren.

Hala, Rita Calderon, Berastegin bizi den peruarrak eta Vania Gorostegi, jatorri euskalduna duen kolonbiarrak bere errealitatea kontatu zuten.

Hona etorritako angartzarretzeko izan zituzten arazo nagusiak kontatu zituzten, eta oso garrantzitsutzat jo zuten hizkuntzaren ezagutza, kasu honetan euskara.

Lehen sektorea protagonista izango da biharko azokan, zuhaitz eta bigekin

Ekonomia » Otsailekoaren ostean, bihar berriro egingo da Zuhaitz Eguna Triangulon eta Biga Enkantea Ferialekuan.

ERREDAKZIOA

Bi azoka berezi ospatuko dira bihar goizean Tolosan. Alde batetik, otsailaren 7an egin zen XIV. Zuhaitz egunean eguraldi kaxkarraren egin zuela ikusita ekitaldia errepikatzea erabaki dute Udalekoek. Aurrekoan bezala, Triangulo plazan izango da eta 13 mintegi egongo dira oraingoan. Hauek era guztiak produktuak ekarriko dituzte: fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak...

Egun hau landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko aproposa izateaz gain, haiei buruzko zehaztasunak galdetzeko ere ego-



Eguraldi txarra egin zuen aurrekoan, eta bihar berriro egingo da. E. E.

kia da. Izan ere, gustura erantzen diete mintegietako arduradunek bertaratutako enka eta galderari.

Oraingo honetan ere aipamen berezia egin nahi izan diete larunbatero Atadi kalean egoten diren mintegiak: Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama mintegia

(Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Garitonandia mintegia (Zaldibar), Lasa Mintegia (Albiztur), eta Urkizu mintegia (Anoeta). Larunbat honetan hauek ere, beraien betiko lekua utzi eta Triangulo plazan egongo dira azoka berezian parte hartzeko.

Bestalde, aurrekoan bezala, mintegi ekologikoak utzi izango da. Zaruatik dator, Blasenea, eta batez ere fruitu txikien zuhaixkekien etorriko da: mugurdiak, ahabiak, arakatzak, andere mahatsak, mastusa zuhaixkak... Baratzeko landare ekologikoetan espezializatua egon arren, zuhaitz eta zuhaixkekien ere lanean hasi direnez, Tolo-

» ZUHAITZ EGUNEKO MINTEGIAK

- **Abaro.** Zaldibar.
- **Agirretxe.** Donostia.
- **Aranburu.** Aginaga.
- **Areitio.** Zaldibar.
- **Belar.** Zaldibar.
- **Blasenea.** Aginaga.
- **Dorronsoro.** Ataun.
- **El montañas.** Tafalla.
- **Guillen.** Pueyo.

sako azoka hau aukera polita izango da produktu hauek ikusteko, eta nola ez, erosteko ere.

Zerkausian, bigak

Zuhaitz egunaz gain, VII. Biga enkantea ere ospatuko da bihar. Ferialekuan izango da hau, goiz guztian zehar. Bertan ondorengo animaliak aterako dira salmentara: frisoiak (ernari dauden bigak) eta pirenaiak, limusin nahiz blondak (hauek, zortzi hilabetetik gorakoak).

Bihar Ferialekura hurbilduko diren erosleentzat dirulaguntzak egongo dira. Frisoi arrazakoentzat, 210 euro. Haragitakoentzat: 8-12 hilabete bitartekoentzat 150 euro. 12-18 hilabete artekoentzat 180, eta 18tik gorakoentzat, 210.

Langabetuei lagutzeko zerbitzua jarri du martxan Moa fundazioak

Ekonomia » 'Abian Gipuzkoa' ekimenarekin interesatuek orientatzeaz eta formatzeaz arduratuko dira, besteak beste.

ERREDAKZIOA

INEMen baitan dagoen Moa Fundazioak *Abian Gipuzkoa* ekimena jarri du martxan, eta honen bidez langabetuentzako orientazio, formakuntza eta lan munduan sartzeko laguntza eskaintzen du.

Hasteko elkarriketa bat egiten diote interesatuari, gehiago ezagutzeko. Ondoren, curriculum bat osatzen laguntzen diote eta lan-elkarriketarako prestatzen. Honakin lotuta, beste hainbat ekintza ere burutzen dituzte, taldekako saioen bitartez, eta bakarkakoekin.

Parte-hartzaileen esku jartzen dute ere beraien bulegoa, telefonoa, faxa, internet, prentsarekin...

Ekimen honetan parte hartu nahi dutenek Moa Fundazioak Tolosan duen egoitzara jo dezakete. Hau Korreo kaleko 12. zenbakian dago. Amaia Mokoroa edo Juncal Casalekin jarri beharko dira harremanetan. Honez gain, telefono edo faxaren bitartez egin dezakete, 943 69 75 64ra deituta.

Oteizaren erakusketara bisita gidatua izango da gaur 12:00etan

Kultura » Artista oriotarraren omenez hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen asteetarako, tartean hau.

ERREDAKZIOA

Oteiza Tolosan proiektuaren baitan, bihar izango Aranburu jauregiko erakusketan barrera, bigarren bisita gidatua.

12:00etatik aurrera, Oteizaren eskulturaren bilakaera berrikustez gain, arkitekturara eraman zuten espiritu esperimentatzailea, bibliografia zabala, poesia produktioa edota gizarte eta kultur suspertzaile gisa artistak bete zuten eginkizunari buruzko erreferentziak ezagutzeko aukera izango da.

Bihar joan ezin duenak datozen egunetan ere izango du Aranburu jauregira hurbiltzeko aukera. Asteartetik igandera, arratsaldeaz, 17:30etik 20:30era egongo da zabalik. Larunbatetan berriz, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era izango da.

Xepla Kirol Elkarteak

2.009ko urteko batzarrean 7 bazkide berriren sarrera onartu zuen. Norbait interesaturik balego jarri dadila harremanetan honako telefono hauetan:

656 77 19 56 • 679 234 496

Gurutze Gorriak anbulantzia berria du larrialdiak artatzeko

Gizartea » Astelehenetik aurrera izango da kalean; larrialdi planak daudenean Gurutze Gorria ere izango da aurrerentzean.

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Gurutze Gorriak anbulantzia berria eskuratu du, eta hau astelehentik aurrera hasiko dira erabiltzen. Inbertsio handia izan da, baina luzerako «onurak baino ekarriko ez dituen».

Yurre Peñagarikano Tolosako Udaleko Agenda 21eko zinegotziak eta Iñigo Zabaleta Tolosako Gurutze Gorriko arduradunak aurkeztu zuten atzo Gurutze Gorriaren azpiegitura berria. Peñagarikano hiru puntu azpimarratu zituen: «iragan igandean argazkia atera genuen Gurutze Gorriko ki-deekin eta anbulantzia berriekin; igandean egitearen arrazoia boluntario guztiak biltzea izan zen, boluntario asko baitituzte es-

kualdean, eta hori gaur egun oso garrantzitsua da, eta goraiatu egin behar da. Bestalde, anbulantzia berriak *Tolosa 2015* ekimenaren ikurra du, etorkizuneko Tolosa definitzen duelako, hau da, parte-hartzailea. Aipatzekoa da, baita ere, aurrerentzean larrialdi planak daudenean Gurutze Gorria ere hartuko dela kontuan».

Urtean 365 egun lanean

Iñigo Zabaletak aipatu bezala, «esfortzu handia» izan da Gurutze Gorriarentzat larrialdietarako ibilgailu berria erostea, «baina luzera onurak baino ez ditu ekarriko, eta merei du». Hain zuzen ere, 71.500 euroko kostua izan du Oinarrizko Bizi Euskarriaren zerbitzua emango duen ibilgailuak. Honek gehienera ere 8 urte egin ahalko ditu larrialdiak artatzen. «Orain arte genuenak 6 urte eta erdi ditu, eta legediak dioen 8 urteak bete arte ekitaldi txikietarako erabiliko dugu». Zabaletak Rotulos Copitec eta Asuncion klinikaren laguntza

eskertu nahi izan du, «materialarekin lagundu dutelako».

Arkaute Etxean, Tolosako Larremendi auzoan dago kokatuta Gurutze Gorriaren egoitza. 365 egun urtean, eta 24 orduz egiten dute lan. Horretarako, sistema mixtoa dute, hau da, boluntarioekin eta kontrataturiko langileekin egiten dute lan, «izan ere, egun horiek guztiak boluntarioekin betetzea ezinezkoa litzateke».

Guztira Tolosaldeko 50 boluntario inguru ari dira lanean Tolosako Gurutze Gorrian, guztiak ere exijitzen den formazioarekin. Gurutze Gorriak ematen du formakuntza hori. Zabaletaren ustez, «pozik egoteko moduan gaude, Bepokurua altua baita; gaur egun gazteen artean boluntarioak lortze geroz eta zailagoa da, eta hemen adinaren batez bestekoa 25 urtekoa da».

Tolosako Gurutze Gorriak 1.576 larrialdi artatu zituen iaz. Astelehentik aurrera anbulantzia berriarekin egingo dute.

Tolosaldea ere Nazio Batuen Global Action Plan programarekin

Gizartea » Familiei aurrezten eta ingurumena zaintzen lagunduko zaie; apirilaren 5a da izena emateko azken eguna.

ERREDAKZIOA

Abian da Nazio Batuek babestutako Global Action Plan (GAP) programaren lagarren edizioa, eta EAeko beste hainbatez gain, Tolosaldeko 20 herrik hartuko dute parte, Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irurra, Orendain, Villabona eta Zizurkilek, hain zuzen. Ekimen honekin, parte hartzen duten familiei aurrezten eta ingurumena zaintzen lagunduko zaie.

Ur eta energiaren kontsumoan aurrezteko eta garraioa eta etxeko hondakinak era zentzuzkoan erabiltzea dira ingurumen programa honen helburuak. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak, Udalsarea 21, jarri dute martxan, Nazio Batuen babesarekin. Ohikoak diren herritarren eginkizunetan eguneroko jokabideak hobetu nahi dira, ingurugiroarekin konpromisua lortuz, eta horretarako, 170.000 familia inguru daude gonbidatuta parte hartzera.

GAP programaren aurreko hiru edizioetan 22.000 familia inguruk

parte hartu dute eta etxean sortutako hondakinetik 350 tona murriztu dituzte, 65 litro ur gutxiago kontsumitu dute, eta 5.000 tona CO2 isurtzea saihestu da.

Hiru hilabeteko iraupena

Parte hartu nahi duten familiak apirilaren 5era arte, dute aukera Internet bidez izena emateko www.udalsarea21.net orrian, paper eta energiaren kontsumo murriztuz. Bestela, programa paperen bidez egin daiteke, eskatzaileei etxera iritsiko zaie kupoiak igorri apirilaren 3a baino lehen.

Hiru hilabeteko tartean ur erabilerari, energiari, garraioari, etxeko hondakinak kudeaketari eta erosketaren ohiturari buruzko lau gidaliburu jasoko dituzte. Bertan ingurumena zaintzeko aholku praktikoak ere izango dituzte. Programak lau galdetara dauka, aurrerapenak ebaluatzeko eta etxe bakoitzaren emaitzak jakiteko.

Programa amaitzean, udalerrri bakoitzak parte-hartzearen emaitzak emango ditu, parte hartu duten etxeek esker lortutako ingurugiro hobekuntzaren emaitzak eta familia bakoitzaren konpromiso pertsonal jakinago delarik. Horrez gain, programa bukatuko duten etxek Etxe Ekologikoaren ziurtagiria lortuko dute eta opariren zozketa batean parte hartuko dute, bizikletak, asteburuak landa-etxeetan, Karpin Abenturarako eta Madariaga Dorretxea Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroarako sarre-rak lortu ahalko direlarik.



Pasa den igandean bildu ziren Tolosako Gurutze Gorriko kideak anbulantzia berriarekin argazkia egiteko. IDOIA LAHIDAGA

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

ostalaritza

Gida 2009

Jatetxeak, sagargotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen gidarik osatua

..orain tolosaldeko-hitza.info-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatua: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida hitza.info-n

hitza

Ospatu V. URTEURRENA gurekin


UROLA KOSTAKO HITZAREN ALDE

BERTSO SAIOA

AZPEITIA
MARTXOAK 14, larunbata
IZARRAITZ PILOTALEKUA
22:00



h3
zeu zara gizona,
hartu hitza



Andoni Egoña Sebastian Lizaso Jon Maia Uxue Alberdi Joan Jose Eizmendi 'Loidisalete' Jokin Uranga

Sarrerak lortzeko: Azkaltzen Zurk tabernan eta Lujan dardaran, Azpeitian Etxerari, Okaltz eta Jim Clark tabernetan, Errezean Barandegian, Getanain Mahasti tabernan, Zestoan Kaiole tabernan, Zumaietan Metro tabernan eta Aizpurua liburdandean eta HITZAREN Zoruzakia eta Azpeitiko Egokizetan. Egunean bertan lehiatzen ari diren diru salgai.

Laburrak

Martxoko zubian egingo duten irteeran izen-ematea

MENDIA » Oargi elkarteak datorren asteko zubirako irteera antolatu du. Hilaren 19an Vielha herrirantz abiatuko dira; 20an, Tuc de mulles mendira (3.014 m) igoera egingo dute; 21ean, Besiberri sur (3.030 m); eta 22an, etxera buelatu. Izena emateko 688 69 86 42 zenbakira deitu beharko da, eta Oargiren kontu korrantean (3035 0028 11 0281141038) 20 euroko dirusarrera egingo.

Pintxo solidarioak Merkatu Txikian, igandera arte

ELKARTASUNA » Gaurtik igandera bitarte, Amarotz Auzo Elkarteak antolatutako Merkatu Txikian, bertan erosteaz gain, beste era batera ere lagundu ahalko da. Izan ere, txorizko pintxo solidarioak jarriko dituzte salgai. Hauek ardoarekin lagundurik egingo dira.

10 euro



Ahoz aho jaialdiaren baitan, Sartutasortu tailerran, Gorringo taldeak haurrentzat emanaldia eskaini zuen atzo. A. IMAZ

Ahoz aho jaialdiaren Irekiera Gala egingo dute gaur 20:00etan Leidor antzokian

Tolosa » Haur eta helduentzat ekitaldi ugari antolatuta dugu Asvineneak aurtengo nazioarteko ahokotasunaren jaialdian.

ASIER IMAZ

Ahoz Aho jaialdiaren Gala gaur ospatuko da Tolosako Leidor antzokian 20:00etan. Bertan Euskal Herriko, Alemaniako, Argentinako, Kamerungo, Txileko, Saharako, Venezuelako eta Herrialde Kata-

lanetako ahokotasunaren artisauek elkartzuko dira; aurtengo Ahoz Aho jaialdiko artistak.

Amaiera, etzi

Asvineneak antolatu duen ahokotasunaren nazioarteko jaialdia astelehenean hasi zen, nahiz eta gaur egingo duten Irekiera Gala. Astebeteko jaialdia denez, igandean emango diote amaiera.

Egitarauari begiratuta, Galaz gain, Peio Añorgak eskainiko du bere emanaldia gaurkoan, Tolosako Sartutasortu tailerrean,

19:00etan. Nazioarteko artisten ikuskizunak, bihar, goizean, arratsaldean eta iluntzean egongo dira. Ekitaldiak haur nahiz helduentzat izango dira.

Aurten erdigunetik ateratzeko asmo horri jarraituz, Urkizum edota San Estebanen ere izan dira emanaldiak. Bestalde, tarte berezia eskaini nahi izan diote saharar herrialdeari; Ereite nahiz Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarlanean, bihar 20:00etan Amartzen poeta sahararren errezitaldia egongo da.

» AHOZ AHO JAIALDIAREN EGITARAU

Gaur, martxoak 13

■ **Peio Añorga.** 19:00etan, Sartutasortu tailerrean izango da oiar-tzaru honen emanaldia. 1986an irakasle lanak alde batera utzi eta ipuinak kontatzeari ekin zion. Azken aldiari, haurrei zuzendutako saioak bakarrik egiten ditu. Euskaraz izango da saioa hau.

■ Ahoz aho jaialdiko gala.

20:00etan hasiko da eta Leidor antzokian izango da. Bertan parte hartuko dute ahokotasunaren artisauek. Sarrerak Kutxanet bidez erosi daitezke.

Bihar, martxoak 14

■ **Itziar Rekalde.** 11:00etan, Bonberenean, Itziar Rekalde ariko da ipuinak kontatzen euskaraz, haurrei. 1997an hasi zen ipuinak bilatzen, asmatzen, idazten eta irakurtzen. Baina batez ere, zer bait kontatu nahi dieten guztiei entzuten eta entzun nahi dizkieten guztiei kontatzen.

■ **Ester Poveda eta J. Luis Mellado.** 16:00etan, Otsabielkartean, Ester Poveda eta J. Luis Melladoren saioa izango da. Poveda valentziarra da, aktore nahiz abeslari lanetan aritzen da. Kale antzerkian zentratu du bere ibilbide gehiena, jaialdi eta garaiako azoketan parte hartuz. Mellado berriz Txiletik dator. Aktorea, gidolaria, eta zutabe-

gilea ere bada. Egun, abuztuan ospatuko den Iberoamerikako lehen jaialdirako dihardu lanean.

■ **Cristina Macia eta David Wapner.** San Estebanen, 18:00etan izango da bi artista hauen emanaldia. Macia Valentziatik (Herrialde Katalanak) dator. Dantza klasiko, garaikideko, pantomimako eta antzezpeneko ikasketak ditu. La Caratula taldearekin lanean aritu zen 1981 eta 1996 bitartean. Urte horretan bertan sortu zuen Maracaibo Teatro konpainia. 1989tik hona, antzerki lanak ahozko narrazioarekin uztartzen du, nazio mailako nahiz nazioarteko jaialdietan parte hartuz. Wapner poeta, narratzaile, musikoa eta titiritero argentinarra da. Beste hainbat poeta eta musikorekin batera sortu zuen Gutral, musika eta antzerki banda. 1998tik Israelen bizi da.

■ **Poeta Saharauiak.** 20:00etan, Amaroako Auzo Etxe elkartean izango dira Bahia Mahmud Awah, Zahara Hasnau, Ali Salemselmu eta Chehdan Mahmud. Hauek Saharako hainbat ipuin kontatuko dituzte gaztelaz. Istoria hauek berak, hasanieraz entzun ahal izango dira Ereite elkartean. Bestalde, ekimen honekin lotuta, Errota Haur Liburutegian 'Una puerta al Sahara' dokumentala ikusi ahal izango da hilaren 13an, 19:00etan.

Etzi, martxoak 15

■ **Maite Franco.** 11:00etan, Urkizum, Maite Franco ariko da ipuinak kontatzen. Franco euskaraz arituko da.

■ **Boniface Ofogo eta Antonio Gonzalez.** 16:00etan, Otsabielkartean, bi artista hauen emanaldia izango da. Ofogo Kamerundik dator. Bere hitzetan, «ahokotasuneko ohituraren seme da, Kameron barnealdeko herriska batean jaio eta hazi baitzen. Non edozein informazio edo jakintzatarra hel-tzeko ahozko transmisioa ezinbestekoa zen.

■ **Ana Torrellas eta Christian Atanasiu.** 18:00etan, San Esteban auzoan izango da bi artista hauen emanaldia. Torrellas, Venezuelarra da bera eta ipuin kontalaritza Venezuelako ospatu zen Ahozkotasanaren Nazioarteko Jaialdian eza-gutu zuen. Alemaniatik dator Atanasiu. Arte Ederrak ikasi zituen eta ondoren zirkoa eta antzerkian lanean hasi zen. 1979an pantomima ikasi zuen eta 1980an Bartzelonara joan zen mirmoan espezializatzeke.

■ **Flora Ovalles.** Jaialdiko azken emanaldia 20:00etan, San Esteban auzoan izango da. Aktorea, titirilaria eta ahozko narratzailea da. Aktore nahiz zuzendari gisa hainbat konpainia sortu ditu.

Bonberenean musika zuzenean entzuteko aukera gaur eta bihar

Tolosa » Los del Gas, Puro Chile, Bocio eta Nekro taldeek kontzertua eskainiko dute 22:30etik aurrera.

A. IMAZ

Bonberenean asteburu honi musika jarriko dio euren lokalean. Horretarako lau talde ekarriko dituzte Tolosara gaur eta bihar. Musika-rien artean herriko taldeak ere ariko dira.

Los del Gas eta Puro Chile

Lehen kontzertuak 22:30ean hasiko dira gaur. Oholtza gainera bi talde igoko dira; Los del Gas orereta-rrak eta Puro Chile bizkaitarrak. Azken hauek beraien disko berri-

ko giran Bonberenean geldialdia egingo dutela azaldu dute antolatzaileek. Horretaz gain, bi taldeek onena eskaintzeko asmoz etorriko direla aipatu dute San Esteban auzoan biltzen diren gazteek.

Bihar: Bocio eta Nekro

Etxeko taldeen txanda bihar iritsiko da: Bocio eta Nekro taldeek kontzertua eskainiko baitute Bonberenean 22:30etik aurrera. Lehen taldea tolosarrek osatzen dute. Nekro taldeko kide batzuk tolosarrak dira eta besteak irurarrak, dena dela gertutik gertura joko dute. Talde hauek ere onena eskaintzeko asmoz etorriko dira San Esteban auzora.

Gaur eta bihar beraz, lau kontzertu ikusteko aukera egongo da Bonberenean 22:30etik aurrera.

Laburrak

Korrikako produktuak salgai gaurko azokan

LEITZA » Korrika 16-rekin bat eginaz, herritar batzuk AEK euskaltegiak antolatzen duen ekimenarekin zerikusia duten produktuak saltzen egongo dira gaur ostirale-rokero azokan. Gaurtik aurrera Korrikako materiala erosi nahi duenak izanen du, azokatik bertara eramango baitituzte, salmentarara egunak luzatuz.

Batzorde bilera deialdia egin du Udalak

AMEZKETA » Udalak batzorde bilera deialdiak luzatu ditu. Hilaren 16ean, astelehenean, 20:30ean Hirigintza/Obretarako batzordea eta Kontuen batzorde berezia egingo dira Udaletxeko Bilkura Aretoan. Hilaren 17an berriz, asteartean, 21:00etan Kultura, Gizarte ongizate eta Ingurumena batzordeak egingo dituzte Bilkura Aretoan bertan.



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdelana kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK



Ganbaran
Pablo Donezar:
ITURRALDE ETA BESTE BIDAIAK
Otsailaren 11tik apirilaren 8ra

Erakustaretoan
Aitor Ortiz:
GAP, ESPAZIO SORRA
Urtarrilaren 27tik martxoaren 28ra

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
Bisitaldi gidatuak: kmk@komazk.com
Tel. 943 112 756 / 667 346 025



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Ikastolako ikasleak gerezi-erramuak landatzen, atzo, Iturtzulon. I. GARCIA

Gerezi-erramuak landatu dituzte ikasleek Iturtzulon

Anoeta » Aurreko astean Laxarbe errekarren inguruan egindako auzolandegiaren jarraipena egingo dute bihar goizean.

ERREDAKZIOA

Kultur Asteari jarraipena ematen ari dira Anoetan aste honetan. Atzo Zuhaitz Eguna egin zuten, aurreko astean eguraldi txarra zela eta ezin zutelako prestatu lurra. Iturtzuloko belardi batean Ikastolako LH5 eta LH6ko ikasleek gerezi-erramuak landatu zituzten, aurretik landatutako zuhaitzen artean.

40 ikasle inguru elkartu ziren eta atxurrak hartuta aurretik egin-

dako zeuden zuloak pixkabat handitu eta gerezi-erramuak landatu zituzten. Lanak bukatuta, merienda izan zuten.

Auzolanerako deialdia

Kultur Astearen beste ekitaldi bat auzolandegia izan zen. Hainbat lagun elkartu ziren eta Laxarbe erreka eta honen inguruetakoko basoak garbitu zituzten. Baina ez zenez eman egin nahi zuten guztia bukatzeko denbora, berriro elkartuko dirabihar, lanari jarraipena emateko. Herriko plazan elkartzeko deialdia egin dute, 09:30ean. Aurrekoan emandako gomendioak berretsi dituzte: 16 urtetik gorakoa izatea, katiuska edo botak eramatea, eskularruak... Ondoren hamaitakoa izango da.

Laburrak

'Camino' filma asteburu honetan Gurea aretoan

VILLABONA » Gurea aretoan helduei zuzendutako filma emango dute asteburu honetan, haurrek antzerkia izango baitute. *Camino* filma emango dute gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30etan eta astelehen 21:30ean.

Pandero ikastaroa antolatatu du Loatzo musika eskolak

MUSIKA » Loatzo musika eskolak pandero ikastaroa antolatatu du apirilaren 20tik ekainaren 15 era. Astean behin izango da. Prezioa 30 euro da ikasturte osoa. Izen-ematea hilaren 23tik 27ra izango da Loatzoren bulegoan edo 943 69 26 19 zenbakian.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Clown estiloko antzezlanaren egingo dute Hipo eta Tomax pailazoek. HITZA

'Sukaldarien istorioa' emanaldia Hipo eta Tomax pailazoekin, etzi Gurean

Villabona » Gurea aretoan izango da emanaldia, etzi, 17:00etan; hiru euro balioko ditu familia guztiari zuzendutako ikuskizunak.

ERREDAKZIOA

Urtebete darabate talde bezala eta dagoeneko 60 emanaldi inguru egin dituzte Hipo eta Tomax pailazoek. Oraingoan Villabonan egingo dute oraingo azmatu duten ikuskizun bakarra: *Sukaldarien istorioa*. Gurea aretoan emango dute, etzi, hilak 15, 17:00etan eta sarrerak hiru euro balioko ditu. Ikuskizunean Hipotolomeo

garbitzailea eta Tomax segurtasun langilea Argiñano sukaldari famatuaren telebistako platoan elkartuko dira eta aspaldi zeukaten ametsa burutuko dute: sukaldari famatuak izan eta umeei Cola-Cao pastela nola egiten den erakustea. Horretarako, Argiñanori erreze eta liburu lapurtuko diote eta bertan dituzten osagaiekin Cola-Cao pastela egingo dute. Baina Tomax eta Hipotolomeo ez dira oso iaioak sukaldako kontuetan eta makina bat arazo izango dituzte beraien helburua betetzeko. Taldekoek azaltzen dutenez, «ikuskizun dibertigarria da, ez dugu beste helbururik, eta, bertan abesteaz gain, sorpresa handiak ere badaude».

Lau urtetik gorako haurrentzat prestatutako antzezlanaren da eta «hamaika urteko neska-mutielek ere gustura jarraituko dute», diote Hipo eta Tomax taldekoek. «Familia guztiarentzat da eta helduek ere oso ondo pasatzen dute. Erantzun ona izan dugu orain arte egindako emanaldietan».

Mikel Sarriegi eta Joserra Fachado dira Hipo eta Tomax pailazoak. Urte asko darabate antzerkiaren munduan murgildurik, bai aktore moduan eta baita antzerki klaseak ematen ere. Clown munduan ikastaro ugari hartu dituzte eta *Sukaldarien istorioarekin* antzezlan mota hori landu nahi izan dute.

Inter UPVrekin berdindu eta gero, bihar Sasikoaren aurka etxean

Villabona » Transportes Lakunzakoak lehen postuan daude Sasikoarekin batera; biharko partida 18:00etan.

ERREDAKZIOA

Aurreko jardunaldian Euskal Sofa Inter-UPV taldearen aurka berdinketartu eta gero, Transportes Lakunza areto futbolako taldeak oso partida garrantzitsua du bihar Sasikoaren aurka. Billabonatarrek

eta Sasikoa berdinduta daude lehen postuan eta irabazten duenak lidergoan jarriko da bera bakarrak.

Horregatik, Lakunzakoek bihar, 18:00etan, Olaederra kiroldegian jokatuko den partidara zaletuak joateko deia egingo dute. Aurrekoan Intxaurrendora joandakoen animoak eskertu dituzte kirolariek eta espero dute, bihar, koan ere, etxean eta aurkari zuzen baten aurka, zaletuen animoak jasotzea.

Inter-UPVren aurka banakoa lortu zuten billabonatarrek, hain-

bat jardunalditan hiru puntuak lortu eta gero. Kontuan hartu behar da Inter-UPV hirugarren postuan zegoela sailkapenean. Billabonatarrek aurreratu ziren markagailuan eta batez ere bigarren zatian nagusitu ziren. Epaileari kritikak egin dizkiote, beste taldekoei falta ugari ez zizkiotelako adierazi. Gainera, azken jokaldian, Lakunzakoek kontraeraso batean, billabonatarrei falta egin eta jokaldia jarraitzeko aukera oso garbia izan arren, epaileak falta adierazi zuen gol aukera garbia ezeztatuz.

Gaur hasiko da Beterriko II. Bertsolari Txapelketa Amasan

Amasa » Bertsotoki afaria egingo dute 20:30ean Iturrigoxo jatetxean; oraindik ere txartelak eskura daitezke.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Amasan Beterriko II. Bertsolari Txapelketa Iturrigoxo jatetxean 20:30ean izango den bertsotoki afariarekin. Oraindik ere eskuratu daitezke afarira joateko txartelak 25 euroren truke Larramendi Bazkunaren eta Aiurriren egoitzetan, Iturrigoxo jatetxean, Andoaingo Ernaitzan eta Stopen eta baita Villabonako Ogiogoxon ere. Telefonoz ere eskatu daitezke tiketak, 943 300733 zenbakian.

Txapelketa honetako ezaugarriarik azpimagarriena da bertsolariak taldeka jardungo dutelalehian eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeak ordezkatuko dituzten taldeak izango direla. Gaurko lehenengo kanporaketan, beraz, bi talde lehiatuko dira: batetik, Nafarroako Arranoak taldeko Julen Zelaieta, Erika Lagoma eta Jon Barberena eta bestetik, Gipuzkoako Hontzakeko Jokin Labaien, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde. Iker Iriarte izango da gai-emalea eta afarian parte hartzen dutenek emandako botua izango da saioa erabakiko duena.

Lehen kanporaketa irabazten duen taldea Urrietako finalera pasako da zuzenean eta han lehiatuko da Zizurkilgo bigarren kanporaketatik ateratzen denarekin.

150 txirrindulari inguru ariko dira bihar XXI. Insalus Saria frogan

Lizartza » 15:30ean hasiko da txirrindularitza froga ezaguna; urteroko moduan Altzo hiru aldiz igo beharko dute.

REBEKA CALVO

Bihar larunbata izango da Lizartzan XXI. Insalus Sari txirrindulari froga. Lasterketa aski ezaguna da jada eskualdean, baita gure muge-tatik kanpo ere, izan ere txirrindulari afizionatuei zuzendutako froga hau irabazten duten askok hurrengo urtean profesioleatarako saltoa egiteko aukera ere izaten dute.

Aipatu behar da, zentzu honetan, iazko irabazleak ere, Noel Martinek, saltoa eman bidean ari dela aurtengoan Lizartzako eta Ereñuko (Bizkaia) frogak irabazi eta gero. Lehendakari Sarian ere bigarren egin zuen eta aurtengoan 23 urte beherakoan mailako Nafargas Energiako taldean ari da. 2007ko irabazleak ere, Ruben Palaciok, saltoa emateko aukera izan zuen Lizartzako froga irabazi eta gero.

107 kilometro

Aurtengoan 150 bat txirrindulari eman dute izena lasterketan parte hartzeko, iaz baino zertxobait gehiago, eta ibilbidea beti bezala 107 kilometrokoa izango da. Hori bai, aurtengoan Tolosan dauden kolektorearen obra famatuak direla eta ibilbidea ez da herrigunetik pasako Izaskun Auzotik baizik.



Iazko lasterketan Noel Martinek irabazi zuen; guztira 133 txirrindulariek hartu zuten parte Insalus Sarian. N. URBIZU



Horiek horrela, 15:30ean aterako dira parte-hartzaile guztiak Lizartzatik eta handik Amarotzera joango dira. Ondoren Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Or-

dizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Alegia pasa beharko dituzte Altzora iritsi bitarte. Behin Altzora igota Lizartzara bueltatuko dira eta handik Amarotzera eta Alegiara pasata Altzo igo beharko dute berriro txirrindulariek. Hurrengo txanpan Lizartza eta Amarotz berriz ere pasata Leaburu igo beharko dute eta handik Tolosako Izaskun auzoa eta Alegia igarota Altzo igo eta Lizartzan izango dute helmuga.

Lasterketa antolatzen duen Otsabio Kirol Elkartetik argitu dutenez, «ez da oso frogaluzea izaten, baina nahiko gogorra da, Altzo horrenbestean igotzea latza da».

Otsabio Kirol Taldekoek lan asko egiten dute urtero lasterketa antolatu ahal izateko. Lehen urte-

an Tolosako Oriako txirrindularitza eskola aritu zen froga antolatzeko, baina ondoren herriko kirol elkarteak hartu zuen bere gain froga. Eguberriak pasata hasten dira urtero guztia lotzen eta gutxi gora-behera 10 lagun egoten dira horretan. Era berean, aurtengoan bereziki eman nahi dituzte eskerrak babesle guztiei; «ez dakigu krisiarengatik izango den, baina aurtengoan gehiago kostatu zaigu babesle kontua lotzea, hala ere erantzun ona jaso dugu eta eskerrak eman behar dizkiegu guztiei». Lasterketa antolatzeko 7.000 euro inguru bildu behar izan dituzte eta erreza izan ez bada ere orain, lasterketa bezperan, lasai daude «aurten ere guztia lotzea lortu» baitute.



Miriam Mendozaren ipuinei adi

IBARRA » 2 eta 4 urte arto haur asko bildu zen atzo Ibarraz Benito Izagirre kultur etxean Miriam Mendozari ipuin kontalariaren istorioak entzuteko. Negrarez aritu zen bat baino gehiago saioa hasi baino le-

hen, baina segituan alaitu ziren ipuin kontalari zaraztarraren kondairak entzunda. Mundua nola sortu zen azaldu zien umeei saioa hasteko eta adi-adi izan zuten guztiak, bai umeak eta baita gurasoak ere. R. CALVO

@ Iritziak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAren webgunean zeuen iritzi eta ekarpenak jaso nahi ditugu. *Zurea da Hitza* izeneko sailean dituzuen ezinegona zabaldu ahal dituzue eta webgune inkesta eta eztabaidetan ere parte hartu ahal duzue. Era berean, papereko edizioa ikusi ahal duzue, azken albiste berri izan edota HITZAren argazki eta bideo bilduma bisitatu. Agendan ere topatuko duzue eta eskualdean dauden ekitaldi desberdinen berri izango duzue:

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Alkizan baserria alokatzen da. Txukun-txukuna, bi gela, sukalde ederra, egongela eta komuna ditu. Berritua dago. 3 solairu ditu eta bi terraza, 30 metro koadro eta 20 metro koadrokoak. 5.000 metro koadrotako terrenoa ere badu etxe aurrean. 1.000 euro hilean. Deitu 619 349 385 telefonora.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Aste Misiolariaren baitan: elkartasun afaria, 20:30ean parrokiako lokaletan.
■ **Leitza.** Kantu jira Aurrera elkarretik abiatuta 19:30ean, musikari-entzuz.
■ **Tolosa.** Ahoz aho ahoz kotasunaren nazioarteko jaialdiaren baitan, Peio Añorgaren ipuin kontaketa Sartutasortun (Kale Nagusia) 19:00etan, eta Irekiera Gala, Leidor aretoan, 20:00etan. Antolotzailea: Asvinenea.
■ **Tolosa.** Hilabeteko zinema abonoak salgai daude Leidor aretoan, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara

ra eta pelikula orduetan 12 eurotan (arratsaldekoak 8; eta gauekoak 8 euro).

■ **Tolosa.** Nikaraguaren aldeko merkatu txikia Kultur Etxean, 15:00etatik 16:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara. Antolotzailea: Amartz Auzo Elkartea.

Bertsolaritza

■ **Altzo.** Bertsolar HITZA desafioa Elordi Elkartearen: Altzo vs. Ibarra. Afaria 21:00etan eta ondoren, desafioa.
■ **Villabona-Amasa.** Beterriko II. Bertsotxapelketaren lehen kanporaketa Amasako Iturrigo jate-

txean 20:30ean bertso-afaria: Nafarroako Arranoak eta Gipuzkoako Hontzak.

Musika

■ **Tolosa.** Los del gas eta Puro chicle musika taldeen kontzertua, Bonberenean, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 48. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Joxemiel.

Zorionak atzoko partez gure pastelik goxoenari!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



Laskoraingoak Donostiako Lilatoian

TOLOSA Pasa den igandean, Emakumearen Egunaren harira, 19. Lilatoia izan zen Donostian. Zizurkil bizi den Nerea Amilibia izan zen garailea. Urtero bezala, Laskorain ikastolako hainbat kide hartu zuten parte, 33 lagunek, hain zuzen ere. «Ekimen honetan gure ikastolarekin bat egiten duten irakasle, ikasle, ikasle

ohi eta gurasoen partehartzea gero eta haundiagoa da. Benetan txalotzeko lana neskok!», azaldu dute. Ikasle batzuk emaitza ona lortu zuten, eta horrez gain, asko izan ziren animatzen; «ikasle eta gurasoak, emakume nahiz gizonezkoak, txalo zaparrada eta oihuekin gu animatu nahian. Mila esker guztioi!». HITZA

berriarekin

Munduko ZINEMA euskaraz

Otsailaren 28tik aurrera,
larunbatera, zure kioskoan BERRIAREKIN

+ 4,90€

Harpideduntzat, bilkuma osoa 19,40€
Eskaria egiteko: 94330 43 45

AUKERTA ERAZTU BIZI euskaraz **berria**

digitala
h
@

Astelehenean, martxoak 16, 16:30ean
KIKE AMONARRIZ
tolosarrarekin elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

